

Guztiontzako gizartea. Ezintasunak dituzten pertsonen Europako urtea dela eta

*Amando Vega Fuente
Pello Aramendi Jauregi*

Didaktika eta Hezkuntza Guneen Antolakuntza Saila
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

GAKO HITZAK: Ezindua. Heziketa berezia. Integrazioa. Berdintasuna.

Gure eskubideak aitortuko dizkigun gizartea dugu helburu, gainerako herritarren pareko balio onartuko digun gizartea, eta ez soilik besteren borondate onaren hartzailetzat hartuko gaituen gizartea. Morris (1998).

2003. urtea, ziur aski, borondate onez eta esperantzaz blai bukatuko da; urtero bezala, igaroko da Eguberrietako elkartasun olatua. Badirudi mundu guztiak duela besteenganako ardura, mundu guztia harro dagoela norbere elkartasunezko izateaz, eta lau haizeetara zabaltzen duela ahulenei eskaini diena: dirua, denbora eta maitasuna: Baina, behin Eguberrietako *marea* igarota, gauza guztiak lehen bezala jarraituko dute. Hala, bakoitzak dago-kion lekua hartuko du gizartean, bere gaitasunen arabera dagokiona. Baita *ezinduek* ere. Zer gehiago egin daiteke?

Gizarte finkatu eta zurrun honetan, gizatalde asko bazterrean geratzen dira, estereotipoz ezarritako aurreikuspenei erantzun ezinik. Ezaugarri fisikoak, psikikoak eta sozialen baitan taldekatutako jendea da, eta beren iza-tea aintzat hartzen zaie gizartean ezarritako eruedetara hurbiltzen diren neurrian; arrakasta lehenesten duten eruedetara, pertsonen arteko harremanak lehia-harreman bihurtu dituzten eruedetara.

Egoera hori pairatzen dute, adibidez, ezintasun fisikoak dituzten pertsonak, eta halaxe oroitarazten du Euskal Herriko Ezindu Fisikoen Koordinazioarako Elkarteak (s/f):

Gure baliorik eza gorputza aintzat hartuta neurtzen da, gizartean «normal» jokatzeko dugun ezintasuna aintzat hartuta. Arazoa zera da: «normal» deitzen dugun hori abstrakzio bat besterik ez dela, zehaztu ezin den abstrakzioa; kategoria finko bat da, eta hala den neurrian, kontrasteanean dago gizarte-funtzioen aldakortasunarekin eta ugaritasunarekin; baita banakoek eta beren ingurukoek elkarrengana egokitze eta doitzeko duten malgutasunarekin ere.

Mendebaldeko herrialdeetan, biztanleen %7k entzumen arazoren bat dutela uste da. Ehuneko hori kopurutan emanez gero, bi milioi lagunekoa da Espainiako Estatuan, eta kopuru hori handitzen joango da biztanleak zahartu ahala; izan ere, hirurogei, hirurogeita bost urtetik gora agertzen diren entzumen arazorik gehienak arrazoi naturalek eragiten dituzte. Kalkuluak eginda, ikusi da Mendebaldeko gizarteetako emakumeak bere bizitzako laurdena ezintasunen batekin igarotzera irits daitezkeela, eta gizonak, berriz, beren bizitzako bost zatitatik bat. Beraz, askotan, adinak eragiten du ezintasuna.

Baina badira beste arrazoi batzuk ere: trafiko istripuak, lan istripuak, kirol istripuak eta etxean gertatzen direnak. Etxea leku arriskutsua da, batik bat haurrentzat. European, urtero zortzi milioi hurrek izaten dute zauri edo kalteren bat etzeko istripuen ondorioz: Eta askori, ezintasunen bat eragiten diete. Beste arrazoi batzuen artean, honako hauek daude: ustekabeko erorikoak, gaixotasun batzuk, haurdunaldi garaian emakumeak har ditzakeen alkohol eta bestelako drogak, zenbait animaliarekin izaniko kontaktuak eta abar. Baina arrisku bat nabarmentzekotan, errepideetan izaten dena nabarmendu behar da: milaka lagun hiltzen dira, eta beste asko ezintasun fisikoren batekin geratzen dira, errepideko istripuek sortzen dituzten beste arazo mental eta sozialak ahaztu gabe.

Ezintasun arazoak uste izaten dugun baino ageriago daude gure bizitzan. Gizarteak bazter utzitako kontua da, eta horren eraginez, jendeak ez du hartzen gertakari horren kontzientziarik. Normaltzat jotzen ez den guztia ezkutatzeko premia dago.

Ezintasuna dituzten Pertsonen Europako Urtean, erakunde ofizialek ekimen batzuk antolatuko dituzte, *kaltetuen* erakundeek beren eskubideak aldarrikatuko dituzte, komunikabideek zerbait esango dute, eta legeren bat ere aldatuko dute; baina, ziurrenik, ez du izango eragin gehiagorik. Ez da gertatuko aldaketa handirik, gure gizartea bestelako bideetatik baitoa, globalizazioaren, lehiaren eraginkortasunaren banderei jarraiki. Ez da utopia-rako eta aldaketa handietarako garaia. Hala da.

Nola lortu, orduan, herritar guztiak *mugida* honetan inplikatzeko, ezintasunen bat duten pertsonen eskubideak dituztela ulertarazteko; azken batean, gu guztion eskubideez ari gara, guztiok baikaude ezindu izateko arriskuan, dela istripuen eta gaixotasunen eraginez, dela adinaren eraginez.

Hezkuntzak erantzukizun handia du alor honetan, bere eginkizun nagusia gure mugekin eta gizartearen mugekin bizitzen irakastea baita, baina baita aldaketa proiektuekin eta utopiekin ere, bizitza errespetuz eta duintasunez bizitzeko baita.

1. Ezinduen aldeko mugimendua

Zenbait pertsonak, gauza betengatik edo besteagatik, muga batzuk dituzte, eta hargatik, *ezindu* deitzen zaie, edo, pertsona horiek ez baztertzearren eta ez seinalatzearen, izendapen teknikoagoak erabiltzen dira, eta ezinta-

sunen bat duten pertsonak deitzen zaie, nahiz eta, egiatan, gauzak ez diren asko aldatzen. Bakoitza den bezalako da.

Mendebaldeko gizartean, ezintasunaz, nagusiki, medikuntzaren ikuspegitik hitz egin izan da: Eta medikuntzaren ikuspegitik, pertsona bat ezindua da ezintasun fisiologiko edo kognitiboak dituelako. Horri erantzuteko, ezinduak sendatzen edo gai bihurtzen saiatzen dira. Laguntzen dutenen eta laguntza jasotzen dutenen arteko harremana honela azaltzen da: «Deus galdu izan ez balute, ez lukete behar izango laguntzarik; bestalde, laguntza ematen dugunean gizartearen ordezkari gisa egiten baitugu, gizarteak ezartzen ditu arauak».

Kontuz ibili behar da medikuen hizkera-moduarekin, eta beren metafora militarrekin —ezintasunaren eta gaixotasunaren aurkako borroka—; badi-rudi ezinduak etsaiak direla, «hankapean hartu behar diren arrotz gizajoak». Sendatzeko, «defentsak» aipatzen dituzte, eta esku-hartze «sendoak». Heziketa bereziak ere kalte egin die ezintasunak dituzten pertsoneri, aukerak urrundu, ezkutatu eta ukatu baitizkie, argudiotzat honako hau erabilia: ezintasuna edo/eta jarrera okertua ez dagozkiela zerbitzu *normalei*, eta *espezialistek* erabaki behar dutela zein erantzun eman. Eta telebistak, ezinduentzat dirua biltzeko programak antolatzen dituenean, are nabarmenago irudikatzen ditu ezinduak biktima bezala, laguntza berezia behar duten biktima bezala; eta berezia bereizia da (inuxente halakoa!)

Pertsonen beharrizanei eman beharreko erantzuna despolitizatu nahi izan da, eta norbanakoen erantzukizun bihurtu da; formula politiko, estrategiko eta praktikoko hori egokia da oso, gerora, defendatu ahal izateko norberak merezi duen arreta jasotzen duela, bere ahalegin eta merituen araberakoa.

Badira, ordea, beste planteamendu batzuk ere; adibidez, ezinduen aldeko mugimenduak proposatzen dituenak, zeinek ikusten baititu arazoak dituzten pertsonak zapalduak, pertsona eta herritar gisa dituzten eskubideei erantzuteko gai ez den gizarte batek zapalduak. Gogorarazi nahi digute, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1948an onartu zuen Giza Eskubideen Deklarazioak lehen esaldian dioen bezala, gizaki guztiak oinarrizko eskubide eta askatasun berak dituztela. Horrela, bada, ezintasunen bat duten pertsonen eskubidea daukate beren komunitatean bizitzeko, osasun eta ongizate zerbitzuak edukitzeko, heziketa ona jasotzeko eta lan aukerak izateko.

Zalantzan jartzen dute medikuntzaren ikuspegia, eta proposatzen dute ezintasunaren interpretazioa soziala egiten duen diskurtsoa. Ikuspegi horretatik, pertsona batzuk *ezinduak* dira ez beren arazo fisiko edo mentalengatik, baizik eta gizartearen egituragatik beragatik; azken batean, ezintasunik ez duten pertsonen diseinaturiko egitura baita, ezintasunik ez duten pertsonentzat.

Ezintasuna ezin da hartu tragedia pertsonal bezala, gaixotasun bat, Jaungoikoaren zigorra edo naturaren akatsa balitz bezala, eta, horren ondorioz, zenbait pertsona besteak baino gutxiago balira bezala hartu. Egoera

hori ulertu nahi bada, desberdintasun multzo handiagoa kontuan hartuta egin behar da, eta horiek identifikatzen, moldatzen eta ezabatzen ahalegindu. Eginahal horretan ari da ezinduen aldeko mugimendua, konpromiso osoz. Norbanakoen egoera aldatu nahian ari diren ekimenek tarte gutxi egiten diote politika-konpromisoei. Ezinduen aldeko mugimenduak, medikuntzaren eredia eta horren adar guztiak zalantzan jarrita, araei egiten die aurre, balioei eta gizartean nagusi diren ikuspegiei.

Ezin da onartu, gehiago pentsatu gabe, ezintasuna giza patologia bat besterik ez dela, testuingururik ez duen zerbait. Etiketak oso erosoak dira gurasoentzat eta hezitzaileentzat, baina kale itsu batera garamatzate, mendetasunera eta bazterketara. Gure gizartean interes politiko, ekonomiko, ideologiko askok egiten dute topo —maiz kontrajarriak izaten dira, gainera—, eta beti ez dute izaten lehenasuna pertsonen eskubideek. Egoera honek eskatzen du ezintasanak dituzten pertsonen eskubideekin eta gizartean barneratzea zail egiten zaien pertsonen eskubideekin konpromiso argia hartu beharra dagoela.

Ezintasuna ez da bakarrik norbanakoaren eta familiaren gabezia, sortzen dizkien zailtasun guztiekin; gizartearen porrotaren ondorio da, pertsonen beharretara egokitu ezinaren ondorio, eta horrek sortzen ditu ez bakarrik mugak, baita ahanztura ere; zenbait pertsonak behar batzuk dituztela ahanzten zaigu. Gizartean ezintasun arazoak ageri dira ez garelako gai ezinduek pertsona eta herritar bezala dituzten beharrei erantzuteko.

Horregatik, heziketa-ekimenek, gizarte-kontrolera eta diru laguntzetara mugatzen diren neurrian, ez dute zentzurik, beren helburua baita ezintasuna duen norbanakoari eta bere familiari ongizatea eta laguntza ematea, justiziarren ikuspegitik. Heziketa-ekimenek, oinarritzko bi printzipio hauei erantzun behar diete:

1. Neurri guztiek abiatu behar dute pertsona ezinduaren eskubideak berriaz aitortzetik.
2. Onartu behar da pertsona guztiek balio bera dutela gizartean eta gizartearentzat.

Horrela ulertzen da Morrisonen aldarrikapena —Bartonek (1998) jasotzen du—:

Gure eskubideak aitortuko dizkigun gizartea dugu helburu, gainerako herritarren pareko balio onartuko digun gizartea, eta ez soilik besteren borondate onaren hartzailetzat hartuko gaituen gizartea.

Denbora askoan, Salamancako Deklarazioak jasotzen duen bezala, pertsona ezinduen arazoak are gehiago handitu ditu gizartearen joera gutxiesgarriak, beren ezinari gehiago erreparatzen baitzion beren ahalmenari baino. Planteamendu honen ondorioz, integrazio-asmoa zuten neurri eta zerbitzu asko bazterketarako eta sailkapenerako bide bihurtu dira.

Ikuspegi sozialarentzat, berriz, oinarria ez da banako *ezindua*, baizik eta ezintasunak dituzten pertsonak bizi diren inguru sozialak, politikoak eta ekonomikoak ezartzen dizkien zapalkuntza-baldintzak. Giza jarduera *normal* deituen egitura inguru sozial eta ekonomiko orokorrak ezartzen du, ezintasunik ez duten pertsonen interesek —interes horientzat— sortutako egiturak. Gisa horretan, ezintasuna zapalkuntza-modu bezala definitzen da (Abberley, 1998). Eta, orduan, autore honek adierazten duen bezala, *ezintasunaren* kontua honela azaltzen da:

Modu jakinean egituratuta dauden kontzeptu eta jarduera multzo bat da, eta «fenomeno sozial oso» bat osatzen dute. Fenomeno hori denboraren joanean eraikiz joan da, baldintza multzo batek eta prozesu materialak eta sinboliko batzuek eragintza (ekonomikoak, kulturalak, politikoak, sozialak...). Eta, ildo horretan, ezintasuna da debeku sozial multzo bat, gizarte baztertzailerik batek ezintasunak dituzten pertsonen ezarritako debeku sistema.

Ezinduen aldeko mugimenduak oso argi zehazten ditu zein diren bere lau oinarriak:

1. giza bizitza orok du balioa;
2. guztiak dira aukera bat egiteko gai, daukaten ezintasuna daukatela ere,
3. gizarteak ezintasun fisikoen, intelektualen eta emozionalen aurrean agertzen duen erreakzioengatik mugak pairatzen dituzten pertsonen eskubidea dute beren bizitzak kontrolatzeko-
4. arazoak dituzten pertsonen eskubidea dute gizartean bete-betean parte hartzeko.

2. Ezinduen Europako urtea

2003. urtea Ezinduen Europako Urtea da. Horrela ezarri zuen Europako Batasuneko Kontseiluak 2001eko abenduaren 3an, aurten betetzen baitira hamar urte Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Nagusiak onartu zituenetik Ezinduen Aukera Berdintasunerako Arauak. Aurtengoa, beraz, aukera ezin hobea da ezintasuna ulertzen saiatzeko, ezinduak beren iritzia ematera animatzeko, eta ekimen berriak hartzeko ezinduen bizitzak hobetze aldera.

Ezinduen Ordezkarien Espainiako Elkarteak (CERMI), gizatalde hori ordezkatzeko eta babesteko plataforma batuak, laguntza hutsean oinarritzen diren eskemak albo batera utzi behar direla defendatzen du, ezinduak subjektu pasibotzat hartzen baitituzte. Pertsonak eta beren eskubideak lehenetsiko dituen eredu baten alde egiten du CERMIk. Horretarako, legediak ez du mugatu behar eskubide zerrenda bat egitera; aitzitik, eskubide horiek gauzatu ahal izateko, eta guztiek errespetatu beharrekoak izateko, baliabide eraginkorrak jarri behar ditu ezinduen eta beren familien eskura (<http://www.lineasocial.com/paginas/nacional/terceraedad/terceraedad2.htm>)

CERMIk proposamen zehatzak egin ditu 2003. urterako, eta galdegin du politikarien gai zerrendetan neurri batzuei tarte egin diezaietela, hartara, ezinduek beren inguru sozialean parte hartu ahal izango dutela ziurtatu ahal izateko; halaber galdegin du gizartearen sentsibilizatzeko programak landu ditzatela, gaur egun gai hauek inguruan dauden estereotipoak eta ikuspegi paternalista gainditu ahal izateko.

Gizarte integratzaile bat lortzeko, beharrezkoa da komunitateek eta gizarteak, oro har, konpromisoa har dezaten desberdintasunak aintzat hartzeko eta onartzeko, eta ezintasunak dituzten haur, gazte, heldu, gizon eta emakumeak bizitzako arlo guztietan kontuan hartzeko.

Ezintasunak dituzten pertsonen beren kabuz moldatzeko aukera eskatzen dute, gizabanako bezala dituzten ahalmenak garatu ahal izateko aukera, gizartearen bete-betean parte hartu ahal izateko aukera,

Hori guztia lortu ahal izateko, Madrilgo Adierazpenak (2002) oinarritzko programa bat ezarri zuen, eta honako hauek eskatu:

- Diskriminazioaren aurkako legedi bat aldarrikatzea, lehenbailehen.
- Jendea sentsibilizatzeko neurriak hartzea, legeak dioena gizarterazteko helburuarekin.
- Ezinduek parte hartzeko duten gaitasunaren alde eta bizitza independentea edukitzeko duten eskubidearen alde indar egingo duten zerbitzuak abian jartzea, eta beren familien lagungarri izatea, ezinduek hezten eta gizartearen barneratzen funtsezko lana egiten baitute.
- Ezindu taldeek jarduerak planifikatzeko modua izan behar dutela kontuan hartzea, eta ez mugatzea planifikazio ondorengo egokitze lanera.
- Lan egiteko bideak jartzea, batik bat ohiko lan merkatuan, hori baita bazterketa sozialaren aurka egiteko modurik onena.
- Eta, azkenik, jarduera hauek guztiak aurrera eramateko, ezinduekin eta hauen aldeko elkarteekin elkarlanean aritzea.

Gizarte honek, askatasunez eta autonomiaz moldatu ahal izateko, abiadura eroa ezartzen du, bai fisikoa eta bai mentala. Gizarte mota honetan, zein paper joka dezakete ezintasunak dituzten pertsonen? Bazterrean gera daitezke, beren bilakaera pertsonal eta sozialari gizarteak ezartzen dizkien mugak gainditu ezinik? Edo gizarteak ezarri duen injustiziazko egoerari aurre egin diezaiokete?

3. Guztiok herritar izateko urtea eta ezintasunak dituzten pertsonen erantzukizun mota guztiak aitortzeko urtea

Ezintasunen bat duten 37 milioi herritarrek oroitarazten eta eskatzen diete botere publikoei eta gizarte osoari neurri zorrotzak hartu beharra da-goela tratu-berdintasuna bermatu ahal izateko, pertsona guztiei aukera be-

rak eman ahal izateko eta ezinduek jasaten dituzten diskriminazio mota guztiak amaitu ahal izateko.

CERMIren inguruan (2002) ezinduen alde bildu den mugimendu sozialak bere manifestuan azaltzen duenez, eta berriz demokrazia ezarri zenetik lorpen handiak egin diren arren:

Zenbait eremu garrantzitsutan, ezinduen diskriminazioa begi bistakoa da gaur egun ere; adibidez, hezkuntzan, formazioan, lan munduan, etxebizitza arloan, jendeari irekitako establezimenduetan, gizarte babesean, garraioan, komunikazioetan, astialdiko jardueretan, instituzionalizazioan, osasun zerbitzuetan, zerbitzu publikoetara eta komunikabide sozialetara iristeko orduan.

Manifestu horrek berak argi uzten du ezintasunak dituzten pertsonak, etengabe, era bateko eta besteko diskriminazioei aurre egin behar izaten dietela: berariaz baztertzen dituzte; era guztietako hesi edo muga onorio diskriminatzaileak jasaten dituzte; mendetasuna areagotzen duten arau eta politikekin topo egiten dute, zeinak oztopo handi bihurtzen baitira eraikuntzetan eta ohitura finkatuetan aldaketak egiteko orduan; gaitasuna neurtzeko eredu baztertzaileak aurkitzen dituzte. Halaber, ikusten dute gutxietsi egiten dituztela, eta ez daukate modurik gainerako herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak, jarduerak, onurak, laguntzak, lanpostuak edo aukerak edukitzeko, apalagoak baizik.

Aski da gure inguruan begiratzea ikusteko pertsona horiek nola bizi diren, eta zenbait txosten eta ikerketak ere adierazten duten ezintasunak dituzten pertsonak, talde bezala, estatus apalagoa dutela gizartean, desabantailak baitituzte hainbat arlotan: ekonomian, lan munduan, hezkuntzan...

Ezintasunak dituzten pertsonak gutxiengo apal eta bakartua osatzen dute. Era guztietako murrizketei eta mugei aurre egin behar izaten diete, desberdin tratatu izan dituzte askotan eta askotan, eta, beren esku ez dauden baldintzek eraginda, ezintasun eta ahultasun politikora eraman dituzte, batzuetan, gainera, estereotipo eta aurreiritzi faltsuetatik abiatuta, gizartean parte-hartzeko eta eskaintzeko duten gaitasuna gutxietsita.

Diskriminazio eta aukera falta are larriagoa pairatzen dute zenbaitek; batik bat, emakume ezinduek, ezintasunak gehien erasandako pertsonak eta beren kabuz baliatu ezin direnek.

Egoera honen ondorioz, CERMIk (2002) adierazten duen bezala, ezintasuna dituzten pertsonen familiek bakar-bakarrik eta behar adinako gizarte-babesik gabe eraman behar izaten dute pertsona horiek zaintzeak dakarren ahalegin gehitua, batik bat pertsona horiek larri daudenean edo beren kabuz baliatzeko gai ez direnean. Eta familiaren barruan ere, ezinduak zaintzeko ardurak ez dira berdin banatzen; gehienetan emakumeei egokitzen zaie (amari, arrebari edo ahizpari, emazteari, bikotekideari...), eta horrek asko zailtzen du emakume horiek gizarte-bizitza oso bat egin ahal izatea.

Gauzak horrela izanik, CERMIren ustez, zainketa eta arreta lanetan agintzen duen eskema tradizionala gainditzeko ahalegina egin behar dute botere publikoek eta gizarteak, eta honako irizpide hauetan egin behar lukete indar:

- Ezinduei laguntza ematera mugatzen den arreta-sistema baztertu behar da, eta ezinduak subjektu pasibotzat hartzen dituen ikuspegia ere bai, eta pertsonen eta beren eskubideetan oinarritzen den eredu berria sustatu; hori izan dadila ezarri behar den sistema integralaren ardatza eta muina.
- Inor ez diskriminatzea (horrek esan nahi du mundu guztia hartu behar dela kontuan ondasunen eta gizarte-zerbitzuen diseinua egitean eta horietarako irispideak ezartzerakoan). Horrek laguntza handia emango lieke ezinduei eta hauen alde ari diren elkartei gizarteko esparru guztietan parte hartzeko jartzen zaizkien oztopoak gainditu ahal izateko. Horregatik, premiazkoa da Europako Batasunak eta estatuek lege-bitartekoak jar ditzaten.
- Ezintasun arazoei ez zaie erantzun behar gizarte-zerbitzuetatik soilik. Botere publikoek, administrazio guztiek beren jarduera politikoa-ren ardatz-oinarrietara ekarri behar dute ezintasunaren arazoa, eta politika orokorreko jardunean eta arlokako jardunean txertatu (justizian, hezkuntzan, azpiegituretan, osasungintzan, kontsumoan, teknologia berrietan...).
- Ezinduen aldeko mugimenduari egitura bat eta batasun bat ematea funtsezkoa da egoera honi erantzun ahal izateko. Guztien arteko el-karrizketa-printzipio bat hartu behar da —demokrazian sakontzeko bidea hori dela ulertuta—, eta *guztia* deitzen dugun horretan ezinduak ere sartu behar dira, bestela, ezinduak eta beren aldeko elkarteak eragile bihurtu ezean, ez baita izango aurrerabiderik arlo honetan.
- Gizartea sentsibilizatzeak berebiziko garrantzia du ezinduen bilakae-ran; izan ere, badirudi komunikabideetan agertzen denak soilik merezi duela arreta eta kezka. Ezinduen egoera komunikabideetan agerraraz-teko bide berriak bilatu behar dira, gaur egun estereotipoak agertzen baitira, agertzen direnean...

Aldarrikapen hauek lege eragingarriak eskatzen dituzte, eta CERMIk ere hala galdegin du (manifestuan ikus dezakezue). Baina beste neurri jakin batzuk bultzatu daitezke, bereziki, hezkuntzaren esparruan; ikastetxe bakoitzak, hezkuntza komunitate bakoitzak landu behar ditu neurri horiek bere eguneroko lanean. Azken batean, ezintasun arazoren bat duten pertsonak ez baztertzeko borrokan konpromisoa hartzea da kontua.

4. Bazterketaren aurkako borroka

Ez da ahaztu behar Europako Batasunak bazterketaren kontra zein konpromiso hartu duen, hau da, gabeziak ezabatzea edo, behintzat, gutxitzea

(hori da hezkuntzaren helburuetako bat ere). Horretarako, Europako Batasunak gomendatzen du pertsonen autonomia bultzatzea, gizartean barnerratzeko aukerak ugaritzea eta beren gaitasun profesionalak emendatzea. Europako Batasunak zera nahi du, hezkuntzaren eta prestakuntzaren Liburu Zurian eskatzen duenez (Europako Batasuna, 1995: 18):

Heziketa jasotzeko aukera berdintasuna bultzatzea eta ahalegina egitea desabantailan dauden taldeak (landa komunitateetakoak, adineko pertsonak, gutxiengo etnikoak eta etorkinak) ez daitezzen bihur 2. mailako herritar teknologia berrietara eta ikasketetara irispidea izateko orduan.

Europako Batasunak, ikuspegi honetatik, bazterketarik onartuko ez duen gizarte baten alde egiten du, eta politika soziala jartzen ditu «bidetzat, horrek bermatu behar baitu aurrerabide ekonomikoak eta Europako integrazioa guztien onerako izan daitezten. Guztion erronka da politika horiek berritzea eta modernizatzea, Europa sozialaren ereduak eskatzen dituen balio oinarritzoei eutsi ahal izateko etorkizunean» (Europako Batasuna, 1998: 15). Helburu hori iristeko, besteak beste, gizarteratze-bideak sustatu behar dira, nahiz eta Europako eredu sozialak arrakasta izan duen, pobrezia eta gizarte-bazterketa arazo handi baitira oraindik ere Europako Batasunean.

Herritar guztientzat aukera-berdintasuna ezartzen duen printzipioa Europako Batasuneko «estatu guztien balioa da, ezin kenduzkoa», eta horrek eskatzen du diskriminazioa negatiboak ez egitea ezintasunak dituzten pertsonen, eta beren bizi-kalitatea hobetzea. Hortik aurrera, onartzen du pertsona horiek heziketa eta prestakuntza esparruetan barnerratzea garrantzitsua izan daitekeela «bizitza ekonomiko eta sozialerako bidean arrakasta izateko» (Europako Batasuneko Kontseilua, 1996). Horregatik, Europako Batasuneko Kontseiluak (2001) adierazten duen bezala:

Hezkuntzak, gizabanako guztiei gizartean barnerratzeko bide berak eskaini behar baitizkie, izaera guztietako pertsonak eta, gero eta gehiago, adin guztietakoak erakartzea eta horiei eustea ez da aski, zerbait gehiago egin behar du. Lehenik eta behin, ziurtatu beharra dago edukiak egoki ote diren talde guztien beharretarako; bigarrenik, bere ikasketa planek eta ikasmaterialek gizarteaz ematen duten irudiak izan behar du gizarteak berak desiratzen duen hori; adibidez, aukera-berdintasunaren alorrean, edo arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako borrokan.

Aukera-berdintasuna bultzatzeko printzipioaren ikuspegitik, ezinduekin harremana duten talde-ekintzak abiatzeko orduan, oinarri hau hartu behar dugu kontuan: onartu behar diegu **talde-ekintzek beraiek ezartzen dituzten helburuak iristeko** orduan, ez daudela besteekin berdintasunean, eta diskriminazio egoera pairatzen dutela:

—Mugimendu-askatasunean eta astialdiko leku eta jardueretara iristeko ahalmenean.

- Lanean, bai lan egiteko aukeretan, bai lan-baldintzetan.
- Hezkuntzan, ezintasunik ez duten pertsonekin lehian jartzen dituen unetik, desabantailan baitaude (Bernal, 1998: 398-399).

Madrilgo Adierazpenak Europako Batasunean esparru kontzeptual berri bat landu ahal izateko oinarriak ezartzen ditu. Adierazpenaren atarikoan bertan ikus daitezke oinarri horiek, eta horixe ekarriko dugu hona, hitzez hitz, edukiak merezi baitu:

1. Ezintasunaz ari garenean, giza eskubideez ari gara. Ezintasunak dituzten pertsonak gainerako herritarren oinarritzko eskubide beren jabe dira. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko lehen artikulua honela dio «Pertsona guztiak libreak eta berdinak dira duintasun eta eskubideetan». Helburu hori lortzeko asmoz, komunitate guztiek onartu behar dute beren aniztasuna, eta ziurtatu egin behar dute ezintasunak dituzten pertsonen eskubide guztiak izango dituztela: nazioarteko hainbat hitzarmenek, Europako Batasuneko Tratatua eta herrialdeetako konstituzioek aitortzen dituzten eskubide zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak.
2. Ezinduek aukera-berdintasuna nahi dute, ez karitatea. Europako Batasunak, beste zenbait eskualdetako erakundeek bezala, bide luzea egin du azken hamarkadetan, eta ezinduen gaineko ikuspegi paternalista izatetik beren bizitzen erabakimena ezinduek beraiek dutela onartzera iritsi da. Ikuspegi zaharrak, errukian eta babesgabatasunean oinarrituak neurri handi batean, onartezin jotzen dira. Banakoaren gaitasunak indartzeari utzi eta ikuspegi global batera jauzi egiten ari gara; gizarte eraldatzeko egiten dugu indar, herritar guztien beharrak onartu eta horietara egokitzeko, baita ezinduenetara ere. Ezinduek eskatzen dute besteek bezalako aukerak izatea, besteek bezalako irispideak gizarte-baliabideetara; adibidez, lanera, heziketa integratzaile, teknologia berrietara, gizarte eta osasun zerbitzuetara, kirolera eta astialdiko jardueretara, eta kontsumoko produktu, ondasun eta zerbitzuetara.
3. Gizarteak ezartzen dituen mugek diskriminazioa eta bazterketa soziala sorrarazten dute. Gure gizarteak antolatzeko eragatik, ezinduak ez dira gai beren oinarritzko eskubide guztiak erabiltzeko, eta gizartetik baztertuta geratzen dira. Estatistika datuek erakusten dute ezinduei eskaintzen zaien heziketa eta lana arunt maila apalekoak direla, onargarri ez izateraino. Ezindu asko, ezintasunik ez duten herritarrekin alderatuta, erabateko pobrezian bizi dira.
4. Ezinduak: herritar ikusezinak. Ezintasunak dituzten pertsonen aurkako diskriminazioa, maiz, gizarteak dituen aurreiritziek eragiten dute, baina are gehiagotan, ahanzturak eta ezaxolak; ondorioz, gizartean jarrera batzuk sortzen eta indartzen dira, jendea eremu arabera mugatzen da, eta horrek eragozpen handia sortzen die ezinduei gizartean parte hartu ahal izateko.

5. Ezintasunak dituzten pertsonak askotarikoak dira. Gizarteko esparru guztietan bezala, ezinduen taldean ere era guztietako pertsonak daude. Aniztasun hori errespetatzen duten politikak soilik izango dute arrakasta. Zehazki, mendetasun-behar handiak dituzten pertsonak eta haien familiek eskatzen dute arreta bereziz joka dezagun guztiok, askotan, ezinduen artetik, beraiek ahanzten baititugu gehien. Era berean, ezintasunak dituzten emakumeek eta gutxiengo etnikoetako kide diren ezinduek diskriminazio askori aurre egin behar izaten diete, ezintasunari gehitzen baitzaizkio generoaren eta jatorri etnikoaren arazoak.
6. Diskriminaziorik eza + ekimen positiboa = gizartean barneratzea. Oinarrizko Eskubideen Europako Agiriak —orain gutxi onartu dute— aitortzen du, ezintasunak dituzten pertsonentzat berdintasuna lortzeko, diskriminaziorik ez jasateko eskubideari beste bat gehitu behar zaiola; alegia, gizarte-bizitzan bere independentzia, bere lekua eta bere parte-hartzea bermatuko dioten neurriez baliatzeko eskubidea.

5. Ezinduen ahotsa entzun

Gizarte-konpromiso hori hartzeko bidean, kaltetuen beraien eskabideak dira akuilu. Garcia Martinek (1996: 28) eskabide horien formulazioan gertatu diren aldaketa esanguratsuei erreparatzen die: «Aldaketa horien oinarrian daude talde-mugimenduen izaeran gertatu diren aldaketak; batetik, hedatzen ari dira, mantso baina etenik gabe, eta bestetik —eta batez ere—, federaziotan eta konfederaziotan egituratzen ari dira. Beren eskabideak, gero eta gehiago, taldean egingo dituzte, eta lobbi gisakoek egingo dituzte, jakitun baitira gero eta eragin handiagoa dutela: arras zatikatua egon den sektore bat izatetik, indarra hartzen ari den gizarte-mugimendu bat izateko bidean doa».

Baina eskabideak egiteko oinarriak ere aldatu dira, ez hainbeste gainerako herritarrek erakutsi duten borondate eta elkartasunaren ondorioz, bai zik eta berdintasuna eskatzen dutelako, diskriminaziorik ez dadila gertatu ondasun eta zerbitzuetara irispidea izateko orduan.

Besteek diseinaturiko politiken eta programen hartzaile pasibo izateari utzi nahi diote ezintasunak dituzten pertsonak; diseinu horiek egiten parte hartu nahi dute, eta ondoren izango duten garapenean ere bai. Diru sariak eta osasun-laguntzak eskatzen dituzte, ohi bezala, baina ez hori bakarrik; prestakuntza gehiago izateko aukera ere eskatzen dute, lan egiteko laguntza gehiago, laguntza teknikoak, etxean laguntza jasotzeko zerbitzuak, familientzako laguntzak eta abar. Are gehiago; badirudi laguntza eta zerbitzu horiek nola jaso nahi dituzten zehazten ere ari direla: laguntza mota bat baino gehiago eskaintzea nahi dute, guztientzat izan daitezela, eta laguntza

mota batzuk eta besteak aldi berean eskain diezazkietela, horrela lortuko baitute beren eta familien *bizi-kalitatea* hobetzea.

Ildo honetan, interesgarria da ezintasunak dituzten pertsonen eskaintzen duten ikuspegia entzutea. Alexandre Jollienek (2001), adibidea, ez du errukirik nahi. Bere iritziz, «ezintasunari ez zaio ihes egin behar». «Ni ez naiz sekula normala izango» baieztatzeak, haren iritziz, desberdintasunak duen zentzuaz galdetzerara darama norbera. Autorea, bere esperientzia kontatzearekin batera —gogor eta mingarria, baina beti zirrargarria—, etengabe ari da normalaren eta anormalaren arteko bereizketa zalantzan jartzen eta jarrarazten. Ez du ematen irtenbide lasaigarri eta orekaturik; zalantza bat plazaratzen du, eta orain arte jakin uste genuen guztia apurtzen du, eta, maiz, uste horiek ezartzen dute desberdin, arrotz zaigunaren aurreko jokabidea.

Hor ulertzen da «ezintasun *biziaren* askapen pedagogia baten beharra». Ezinduaren nortasuna aldarrikatzeko, eta *bestelakotzat* jotzeko ideia baztertzeko. «Biderik emankorrena» (Peters, 1998: 236), matxinadatik harago edo agintzen duen gizataldera egokitzetik harago, gizabanakoaren garapen-aukera onartzea da.

Ikuspegi honek erabat bere egiten ditu hezkuntza-jardueraren helburuak; izan ere, «pertsona osoki garatzea» da hezkuntzaren funtsezko helburua, horrek lagunduko baitio egungo gizartean bete-betean barneratzen. Horregatik, hezkuntzaren esparruan egun egiten dena aztertu beharra dago, etorkizun ezezagun bati begira ari baitira lanean, eta hori mesedegarri bezain arriskutsu izan daiteke bilakaera pertsonal eta sozialean arazoak dituztenentzat.

Eta, hasteko behintzat, ezintasunak dituzten pertsonen hitz egin behar dute, eta, ondorioz, hezitzaileentzat, ezinduen *ahotsa* entzuteak izan behar du heziketa-jardueraren oinarri. Erronka hori jartzen du Buruko Gaitzak dituzten Pertsonen Aldeko Elkarteen Nazioarteko Ligak:

Ahots berri bat sumatzen hasiak gara, eta entzun dezagun eskatzen digu. Buruko gaitzak dituzten pertsonen ahotsa da. Orain arte, bestek hitz egin izan du haien izenean, uste baitzuten ez zirela gai beren kabuz hitz egiteko. Orain, haiei entzutea da gure egitekoa, komunitateko bizitan besteen pare parte hartzen laguntzea, eta erabaki esanguratsuak hartzeko aukerak eskaintzea.

Tokian tokiko komunitateko taldeetan eta bizitzan parte hartzeak, izan ere, indartu egiten du bakoitzak bere buruarengan duen estimua eta zerbaitetan partaide delako sentimendua, eta taldeak eta norbanakoak elkar errespetatu dezaten eta elkar aintzat har dezaten laguntzen du. Parte hartzea banatzea da, hartzea eta ematea. Eta, ildo horretan, Buruko Gaitzak dituzten Pertsonen Aldeko Elkarteen Nazioarteko Ligak denbora asko darama esanez gogoeta egin behar dela parte-hartze horrek dituen ondorio guztiez.

Parte-hartze hori familiako bizitzan hasten da, jaio eta berehala, eta familiako jarduerak banatuz egiten da. Garapenean oso atzeratuak dauden

haurrak, edo arazo fisikoak dituztenak, nahi gabe, familiako eguneroko bizitzatik baztertuta gera daitezke. Erabakiak hartzen ikastea da garrantzitsuena, nahiz eta haur batzuei besteei baino gehiago kostatzen eta astiroago joan; eta, gero ere, erabakiak hartzen jarraitu behar du bizitza osoan, eta bizitzako arlo guztietan.

Ezinduek gizartean parte hartzeko dituzten muga guztiak ezabatu behar dira, ez bakarrik *ezintasunak* dituzten pertsonenak, baita gizartearenak ere (horiek, batez ere). Muga horien artean, aintzat hartu beharko dira bai fisikoak; bai mentalak, kulturalak, ekonomikoak; bai gizartean bete-betean parte hartzeko traba diren oro.

Hain justu, heziketa bereziari egiten zaizkion kritikarik gehienak gizarte-justiziaren eta berdintasunaren ingurukoak dira, praktikan bereizketek bere horretan jarraitzen baitute, eta aukera berdintasuna, denen ahotan badabil ere, beti heltzeko baitago. Azken buruan, betikoek jarraitzen dute bazterrean, eta ez, hain zuzen, ezinduen erantzukizunagatik. Berriz jarri beharko da indarrean ez bakarrik zapalduaren eta itxaropenaren pedagogia, baita *haserrearen pedagogia* ere —Paulo Freire (2001)—, garai bateko amorru eta sumindura politikoarekin, sinetsita errealitatea eralda daitekeela eta geroko *gerotan gauzatzeko proiektuei* epea jarri behar zaiela.

Ezintasunak dituzten pertsonak aintzat har ditzatela eskatzen dute (eskubide bezala, inork ez baztertzeko eskubidea aitortzeki, besteen borondate onaren menpe egon beharrik izan ez dezaten. Diren bezalaxe onar ditzaten nahi dute; ez dute nahi sendatzeko bidean jartzea, inoiz izango ez direna izatera behartzea: askok *normal izatea* deitzen duten hori. Ezintasuna horrela ulertzeak esan nahi du ezinduek, beren gaitasunak lantzeko behar dituzten zerbitzu guztiak galdegin arren, desberdin izaten jarraitu nahi dutela, eta eskatzen dutela ezinduak ez direnek desberdintasunak onar ditzatela eta, are gehiago, «desberdintasunak dohaintzat har ditzatela».

6. Erronkak gizartearentzat eta herritarrentzat

Erronka ugari dira, eta handiak. Ez dugu ahaztu behar gizarte lehiakor eta indibidualistan bizi garela; diruak balio du gehien, eta, ondorioz, ezer baino gehiago, errentagarritasuna eta eraginkortasuna bilatzen ditugu. *Postutopiaren* garaian bizi gara, ekonomia eta gizarte arloetan berdintasuna lortzeko idealak eman zituen bere onenak; ideal hori gaur egun ez da, duela zenbait hamarkada bezala, hainbat mugimenduren indar eragilea, eta, beraz, «badirudi, ongizate-estatuaren krisiak honako ideia honetara garamatzala: pertsona bakoitza edo herrialde bakoitza da bere bizitzan dituen arrakasten eta hutssegiteen erantzule, naturako eta gizarteko gertakizunak zeresanik ez balute bezala» (Cortina, 1997).

Onartzen badugu ezintasunak dituzten pertsonak herrikide ditugula, beste edozeinek dituen oinarritzko eskubide berak dituztela, ahalegina egin

beharko dugu beste edozeinek dituen aukera berak izan ditzaten komunitateko bizitzan parte hartzeko. Ildo horretan, Brisendenek esaten du —Draken aipu batetik hartua da, (1998)— berari eta beste zenbait ezinduri zera gertatzen zaiela:

Gu onartzeko diseinaturik ez dauden eraikuntzetara iritsi ezinik gertatzen gara, eta horrek beste hainbat ezintasun ekartzen ditu, heziketan, lana lortzeko ditugun aukeretan, gure gizarte-bizitzan eta abar. Hala ere, argudio horiek baztertu egiten dira, aintzat hartzeak esan nahiko bailuke onartzen dela gurea ez dela zorte txar kontua, baizik eta gure kontra den ingurune sozial batek zuzenean zaplatzen gaituela.

Ulertu beharko da familiek zenbaterainoko zailtasunak izaten dituzten, egoera soziolaboralak eraginda askotan. Familia horien baliabide sozioekonomikoek eta seme-alaben ezintasun motak baldintzatzen dute gehienbat familien ongizatea. Hala dio Oliverrek (1998: 52):

Ezinduek beren ezintasunari ematen dizkioten erantzunak ezin dira ulertu traumari edo tragediari ematen dioten erantzun bezala, ezta beren burua gai sentiarazteko modu bezala ere. Hori ulertzeko, ikuspegi zabalagoa eduki behar da: pertsona horien bizi-historia hartu behar da kontuan, beren egoera materialak eta ezintasunak beraientzat duen zentzua, taldean egin baitute borroka bizi diren gizartean gai sentitzeko eta parte hartzeko.

Ikuspegi sozialetik egiten den azterketak erakusten du ezintasunaren gaiak aukera ematen duela galdera larriak egiteko egungo gizartearen izaeraz eta nahi edo desiratzen dugun gizarteaz. Gizarte batek taldeak edo banakoak baztertzeko erabiltzen dituen arrazoi eta formek erakusten dute zer nolako mailakatzeak gertatu diren, eta banakoen zein alderdi goraipatzen diren eta zein ezaugarri irizten zaien onartezin.

Arazoak ikuspegi sozialetik interpretatzea, baina, ez da ziaten atsegina. Interpretazio mota hauek agerian uzten dute pedagogian, curriculumean eta hezkuntzaren antolamenduan oinarritzko aldaketak egin behar direla, eta ez da erraza izaten horri aurre egitea. Hezitzaileak arduratuagoak daude eguneroko lanak dituen zailtasunei erantzuteaz, erantzun integralak bilatzeaz baino, eta nahiago izaten dute arazoei erantzun azkarrak ematea edo joandako garaiei pentsatzen egotea. Jarrerazko disfunczioak edo disfunczio emozionalak dituzten haurren patologiei erantzuteko, erakargarriagoak zaizkie teoria psikologikoak, esku-hartze terapeutikoa eskatzen duten horiek, eta ez hainbeste planteamendu sozialak, konpromiso gehiago eskatzen baitiote norberari eta gizarteari.

Arazoi horregatik, sekula ez da ahaztu behar arazoak dituzten pertsonekin egiten dugun lana, beti, gure balioek baldintzatuko dutela. Beraz, funtsezkoa da gogoeta sakona egitea eta *ezintasuna* nola ulertzen dugun argitzea, horrek guztiz baldintzatuko baititu gure ikuspegiak eta ezintasunak dituzten pertsonekin hartu-emanak lantzeko modua.

Baina ez da erraza gizarte hau aldatzea; interes ekonomikoak jarri dira sozialen gainetik, eta Europako Batasuneko herrialdeen hezkuntza-politikan ere sumatzen da hori (Unesco, 1994). Jarrerak eta jokabideak aldatu behar dira; hori beharrezkoa da ezintasunak dituzten pertsonen irispidea izan dezaten ikastetxeetara, lan mundura eta abar, eta Europako Batasuneko kide diren guztiei dagokie hori, hezkuntza-politika guztiei, ezintasunak dituzten pertsonen elkarte guztiei eta bizikidetzan ardura duten guztiei.

Hezkuntzak, beraz, ez du mugatu behar *heziketa behar bereziak* deitzen diren horiei erantzutera. Bere heziketa-jardunean kontuan hartu behar du behar horiek baldintzatzen edo horiei eragiten dieten faktore sozial, ekonomiko eta politikoak, eta ezinduak gizartean barneratzeko oztopo diren heinean, horiek aurka egin behar du, ahal duen neurrian. Edozein ezintasun mota duten pertsonen heziketa jasotzeko eskubidea dute, eta Hezkuntzak sekula ezin dio uko egin horren alde jarduteko duen konpromiso sozialari, azken batean, guztientzako heziketa lortzea baita bere erantzukizuna.

Jasotze-data: 2003-04-20

Onartze-data: 2003-11-10

Abstract

The concept of «disability» and its implications both educational and social are analysed in this essay. The year 2003 is designated by the European Community as the year of disability, given that it is ten years since equal rights for the disabled were recognised by the UN. Today, in the 21st century, the disabled suffer from discrimination and lack of opportunities in many aspects of daily life (employment, social security, education, leisure...). Society alleviates these consequences by means of «aid» destined for people of «different status», without their integration and social insertion becoming a reality in the full sense. This article means to reflect and verify the manifold claims of people who also belong to this society, who live with us and who are categorised in a mysterious way as «different».

Keywords: Disabled. Special Education. Integration. Equality.

En el presente escrito analizamos el concepto de «discapacitado» y sus implicaciones tanto educativas como sociales. Esta año 2003 es considerado por la Comunidad Europea como el año de la discapacidad, ya que se cumplen diez años de la aprobación por parte de la ONU de la igualdad de derechos de los discapacitados. Hoy día, en

pleno siglo XXI, las personas discapacitadas sufren la marginación y la falta de oportunidades en muchas de las facetas de la vida cotidiana (empleo, protección social, educación, ocio...). La sociedad palió estas consecuencias por medio de «ayudas» destinadas a personas con un «estatus diferente», sin que la integración y la inserción social sean una realidad en toda regla. Este artículo pretende reflejar y constatar las múltiples reivindicaciones de personas que también pertenecen a esta sociedad, que conviven con nosotros y que son catalogados sibilinamente como personas «diferentes».

Palabras-clave: Impedido. Educación Especial. Integración. Igualdad.

Dans ce document le concept de «handicapé» et ses implications autant éducatives que sociales sont analysés. La Communauté européenne considère l'année 2003 comme l'année du handicap, car cela fait dix ans que l'ONU a approuvé l'égalité en droits des handicapés. Aujourd'hui, en plein XXI^e siècle, les personnes handicapées subissent la marginalisation et le manque d'opportunités dans beaucoup d'aspects de la vie quotidienne (emploi, protection sociale, éducation, loisirs...) La société compense ces conséquences moyennant des «aides» destinées à des personnes ayant un «statut différent», sans que l'intégration et l'insertion sociale ne soient une réalité en bonne et due règle. Cet article prétend refléter et constater les nombreuses revendications de personnes qui comme nous, font partie de cette société, qui vivent avec nous et qui sont classés prophétiquement comme étant des personnes «différentes».

Mots clé: Handicapé. Enseignement Especial. Integration. Égalité.

Bibliografía

- ARRIBAS, F.J.; SORIA BREÑA, R.J. (2002): «La construcción social de la diferencia», *Nómadas. Revista crítica de ciencias sociales y jurídicas*. Enero-junio.
- BARTON, L. (1998): *Discapacidad y sociedad*. Madrid: Morata.
- BARTON, L. (2000): «Análisis social de la discapacidad: ¿romanticismo o realismo?» *I Congreso Internacional de Necesidades Educativas Especiales*. Granada. Adhara, 85-97 orrialdeak.
- BERNAL, M. (1998): «La política de la U.E. ante las personas con discapacidad». *XV Jornadas Nacionales de Universidad y Educación Especial*. Oviedo, 397-403 orrialdeak.
- CERMI (2002, 2003): *Un año para la plena ciudadanía y la plena responsabilidad de las personas con discapacidad*. <http://www.cermi.es/Texto/did2002.asp>
- COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (2001): *Informe de la Comisión. Futuros objetivos precisos de los sistemas educativos*. Brusela. 31.01.2001 COM(2001).

- COMISIÓN EUROPEA (1996): *Libro Blanco sobre educación y formación*. Luxemburgo. Publ. Oficiales de las Comunidades Europeas.
- COMISIÓN EUROPEA (1998): *Programa de acción social 1998-2000*. Luxemburgo. C.E.
- COMISIÓN EUROPEA (2000): *Europe 2002-Una Sociedad de la Información para todos*. Documento preparado por el Consejo y la Comisión Europea para el Consejo Europeo de Feira. Brusela. Belgika.
- COORDINADORA DE DISMINUIDOS FÍSICOS DEL PAÍS VASCO (S/F): *Reivindicaciones sobre integración social del colectivo de personas con discapacidad física*. Donostia. Coordinadora de Disminuidos Físicos del País Vasco.
- CORTINA, A. (1997): *Ciudadanos del mundo. Hacia una teoría de la ciudadanía*. Madril: Alianza.
- FREIRE, P. (1975, 1978): *Pedagogía del oprimido*. México: Siglo XXI.
- FREIRE, P. (1993): *Pedagogía de la Esperanza*. Madril: Siglo XXI.
- FREIRE, P. (2001): *Pedagogía de la indignación*. Madril: Morata.
- JOLLIEN, A. (2001): *Elogio de la debilidad*. Barcelona: RBA.
- MINUSVAL (2002): «Globalización de la solidaridad». Conferencia. Europea: *La economía social como instrumento de integración y cohesión social*. Minusval, 135, 57 orrialdea.
- MINUSVAL (2002): «La integración a través del deporte». *Minusval*, 135, 5 orrialdea.
- MONTERO LLERANDI, J.M. (1998): *De la exclusión a la integración. Un ensayo sobre la situación de los minusválidos*. Madril: Escuela Libre argitaletxea.
- NACIONES UNIDAS (1988): *Programa de Acción Mundial para las personas con discapacidad*. Madril: Real patronato de Prevención y Atención a Personas con Minusvalía.
- PÉREZ DE LARA, N. (1998): *La capacidad de ser sujeto. Más allá de las técnicas de Educación Especial*. Barcelona: Laertes.
- TRIESCHMANN, R.B. (1995): *Envejecer con discapacidad*. Barcelona: Fundació Institut Guttmann, 1995, 148 orrildea.
- UNESCO (1994): *Conferencia mundial sobre necesidades educativas especiales: acceso y calidad. Declaración de Salamanca y Marco de Acción sobre necesidades educativas especiales*. Salamanca: MEC.
- VEGA, A. (2000): *La educación ante la discapacidad. Hacia una respuesta social de la escuela*. Valencia: Nau Llibres.
- VEGA, A. (2003): *La educación social ante la discapacidad*. Archidona (Málaga): Aljibe.
- VÍCTOR MARTÍN, A. (2000): «Diez visiones sobre la vejez: del enfoque deficitario y de deterioro al enfoque positivo». Pp. 161-182. *Revista de educación*, 323.